



BORTZIRIETARAKO EUSKARAREN II. PLAN ESTRATEGIKOA

2021-2024



AURKIBIDEA

[Sarrera](#) 3

[Planaren oinarriak](#) 8

[Zehar lerroak](#) 12

[Euskararen egoera Bortzirietan](#) 15

[Helburuak](#) 29

[Ildo estrategikoak eta lan esparruak](#) 30

[Lehentasunak](#) 33

[Jarduerak](#) 35

[Kronograma](#) 48

[Ebaluazioa](#) 58

SARRERA

Kokapena

Dokumentu honek Bortzirietan 2021-2024 epealdian garatzeko euskararen plan estrategikoa biltzen du. Bigarren plan estrategikoa da hau; lehena 2014-2017 aldirako egin zen, eta gerora luzatu egin da 2020ra arte.

Plana 2020ko martxotik irailera bitartean diseinatu, eztabaidatu eta kontrastatu da. Horren ondotik, aurkezpena egin da eta Batzorde Erabakitzaileak ontzat eman du. Plana diseinatzeko prozesuan Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izan du mankomunitateak.

Plan estrategiko hau egiteko mankomunitateak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso du, herritarren parte hartzea bultzatu eta sustatzeko proiektuak garatzeko dirulaguntza deialdiaren barne.

Planaren diseinua

Plan honen diseinua erabat baldintzatu du COVID-19ak eragindako osasun larrialdiak. Hasierako asmoaren arabera, partaidetza prozesu bakarrean landu nahi ziren plan berriaren edukia eta Bortzirietako euskalgintzaren gaineko gogoeta eta etorkizuneko antolamendua. Osasun larrialdiak sortutako egoeraren ondorioz, ordea, aurreikusia zegoen prozesu hori bitan banatu da. Hortaz, lehen fasean plan estrategikoa lantzeko prozesua burutu da, eta euskalgintzaren gaineko gogoeta 2021ean lantzeko gelditu da.

Planaren diseinuan hiru eragile aritu dira nagusiki. Batetik, euskara teknikariak aritu dira aurreko planaren ebaluazioa egiten eta plan berriaren eskema nahiz edukiak landu. Bertzetik, mankomunitateko teknikariek eta Elhuyar Aholkularitzako bi teknikarik osatutako talde eragilea aritu da planari ekarpenak egiten eta prozesu parte hartzailea diseinatzeko eta antolatzen. Hirugarrenik, partaidetzarako espazioak aipatu behar dira, modu aunitzetan egin direnak: eskualdeko eragileen iritzia jaso dira galdetegi bidez (58 erantzun: 22 emakumezkoenak, 23 gizonezkoenak eta 3 ez-binarioenak), ebaluazioa eta plana osatzeko partaidetza saioa egin da haiekin (15 lagun: 7 emakumezko eta 8 gizonezko) eta planaren kontraste tekniko egin da mendialdeko euskara zerbitzuetako bi teknikarirekin eta UEMAko bertze birekin. 2020ko urriaren bukaeran plana bera aurkeztea aurreikusia zegoen, baina aurkezpen saioa osasun larrialdiaren ondorioz hartutako neurriengatik data jakinik gabe atzeratu da.

Hona prozesua laburbiltzen duen irudia:



Testuinguru orokorra

Planak Bortzirietako errealitateari erantzuteko helburua badu ere, funtsezkoa da azken urteotan Euskal Herrian hizkuntza normalizazioaren inguruan egiten ari diren gogoe-tak aintzat hartzea, Bortzirietako normalizazio prozesua hizkuntzaren normalizaziorako prozesu orokorraren baitan ulertu behar baita. Ondoko lerroetan bildu nahi izan dira azken urteotan euskalgintzako eragile ezberdinek hizkuntza normalizazio prozesuak bizi duen egoeraz eta etorkizunean lehentasunez landu beharko lituzkeen ildoez diotena. Korrante nagusien laburpen bat bertzerik ez da hau; inork aipatzen direnak gehiago landu nahi izatera, ematen diren bibliografia erreferentzietara jo dezake.

Euskararen normalizazio prozesua bidegurutzean

Euskara biziberritzeko bidean aldaketa garaian edota ziklo aldaketa batean gaudela aipatzen da azken urteotan maiz¹, orain arteko erronkei bertze batzuk eransteko garaian, alegia: ezagutzari erabilera, aldekotasunari aktibazioa, bihotzari mingaina. Euskalgintzako eragileen artean elkarlanerako bide sendoagoak urratzen hasi dira eta akordio poli-tikoen bidea ere zabaltzen hasi da han-hemen.

Egoeraren analisi horretan aunitz zabaltzen da bidegurutzearen kontzeptua. Horren bidez adierazi nahi da azken hamarkadotan hizkuntza normalizatzeko egin den bidea agor-tzeaz dagoela: ahalegin gehienak euskararen ezagutza handitzean egin dira, eta neurri batean lortu da euskaraz dakiten herritarren kopuruak emendatzea (ez toki guzietan eta maila berean). Aitzinera begira nondik nora jo eta nola ekin erabakitzeak momentua da, orain arteko bideak eman beharrekoa eman duelakoan. Eta bidegurutze horretatik, ikuspegi kontraerankorra sumatzen da; euskararen panorama guziz aldatu da urte gutitan, munduan zehar hizkuntzen egoera aldatzen ari den bezala: inoiz baino egoera hobean dago euskara (inoiz baino hiztun gehiago, prestatuagoa, alfabetatuak, hizkuntza ere modernitatera egokiturik...), baina bertze alderdi batzuei erreparatuz gero galtze-ko arriskua ere inoiz baino larriagoa izan liteke (ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea gero eta handiagoa, teknologia berriek ekarri duten errealitate berria, belaunaldi berrien bertzelako pentsaera eta izaera eta euskara erabiltzeko motibazio falta, globalizazioaren eragin hazkorra...)².

Bidegurutze horretatik zein norabide hartu erabaki beharrean daude euskalgintza osatzen duten eragile guztiak, instituzioak nahiz gizarte eragileak. Hurrengo urteetan lehen-tasunez landu beharreko ildoak zein diren erabaki behar da, eta zenbait eragilek proposamen zehatzak egin dituzte; horrez gain, bide berri hori urratzeko euskalgintzaren egiturak birpentsatu eta berrantolatu beharra agerian dago.

Lehentasunez landu beharreko ildoak

Euskararen biziberritze prozesuak hurrengo hamarkadetan duen erronka estrategiko nagusia da irakaskuntzari esker euskaldundutako herritarrak euskal komunitatearen partaide aktibo bilakatzea. Hainbat eragilek plazaratu dituzten iritzi garrantzitsuenak kontuan hartuta, honela laburbiltzen ahal dira prozesu horrek hurrengo urteetan lehen-tasunez landu beharko lituzkeen ildoak:

1 Iritzi hori duten eragile aunitzen ahotsa biltzen du Gari Goikoetxeak *Euskara irabazteko bidean* liburuan (Elkar-Berria-Jakin, 2016). Ziklo aldaketa Topalabea taldeak aipatzen du “Berrindartu eta jauzi” dokumentuan, www.topagune.eus webgunean ikusgai dagoena.

2 Bidegurutzearen kontzeptua bereziki landu du Kike Amonarriz Gorriak *Euskararen bidegurutzetik* liburuan (Elkar, 2019).

1. Lan mundua³

Esparru honen euskalduntze masiboa estrategikotzat eta lehentasun osokotzat jotzen da. Gainera, gai honi behar den sendotasunez heldu ezean belaunaldi berriei iruzur eginen zaiela ere aipatzen dute hainbat eragilek: hezkuntzan azken hamarkadotan inbertsio eskerga eginda, belaunaldi horiek euskaraz egin dute ikas prozesua, kasu aunitzetan baita goi mailakoa ere, baina lan mundura jauzi egiten dutenean erdarak erabat gailentzen diren esparruan sartzen dira.

Langile eta enplegatu euskaldunek lana euskaraz egin ahal izan dezaten beharrezkoak diren baldintzak sortu behar dira, eta gazte euskaldunen inkorporazioak horretarako akuilu izan behar du. Hezkuntza sisteman euskara biziberritzeko egindako ahaleginari segida naturala eman behar zaio. Lan munduan egin beharreko apustua 20-25 urtetik goitiko adin taldeari begirako helburua da, eta eremurik euskaldunenetan eta arnasguneetan intentsitate bereziz jorratu behar da.

2. Esparru hurbil ez-formala

Euskararen lorpenik handienak hezkuntza arloan gertatu badira ere, gauza jakina da eskolak bakarrik ezin duela ikasle guztien ezagutza maila egokia bermatu, ezin duela erabilerarako inertziaz sortu (edo, sortu arren, ezin diola eutsi), ezin diela aurre egin hizkuntza hegemonikoen presioari eta horien eskaintzaren uholdeari.

Haur eta gazteek hizkuntza (ezagutza, kalitatea, erabilera, motibazioa) hobetuko badute, eskolaz kanpoko faktoreei esker hobetuko dute, batez ere. Helburua da haur eta gazteek eskola orduetatik kanpo euskararen eskaintza, erabilera eta kontsumoa lehenestea, orokortzea, eta defektuz euskaraz izatea esparru guztietan. Alegia, haur eta gazteentzako eskaintza eta erabilera esponentzialki biderkatzea aisialdian, ingurune digitalean, kulturen eta familian (hezkuntza alde batera utzi gabe)⁴.

Nafarroara etorrita ere, Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoan (2016-2019) euskararako paradigma berria proposatu zen, jauzi kualitatiboaren beharra azpimarratuz. Haur-gaztetxoek euskararen erabilera pizteko eta sendotzeko premia eta, euskararen ondorengoenganatzea lehentasuna dela, hizkuntza arlo ez-formalean (familian, lagunartean, auzo bizitzan...) errotu beharra larria dagoela nabarmendu zuen⁵.

3. Euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa

Euskararen oinarritzko ezagutza unibertsalizatzea ezinbertzekotzat jotzen du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak⁶. Izan ere, Euskaraldiak erabilera ohituretan eragiteko helburua badu ere, ohitura horietan eraldaketa gertatzeko oinarritzko ezagutza erabat zabaltzea beharrezkoa da. Helduen euskalduntzearen doakotasunari buruz adostasun batzuk azaleratzen ari dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroako Foru Komunitatean oraindik ez da arlo horretan urratsik egin; gobernuak 2016-2019 aldirako osatu zuen Euskararen I. Plan Estrategikoan aipatzen da helduei euskara ikasteko aukera Nafarroa osoan bermatzea eta hori baldintzarik hoberenetan eskaintzea funtsezkoa dela⁷.

Gure jendarte gero eta anitzagoa da, jatorri, kultura eta hizkuntza askotarikoak dituzten herritarrek osatua. Azker hamarkadetako migrazioek eta mugikortasunaren areagotzeak konplexutasun handiagoa eta erronka berriak⁸ ekarri dituzte gure herrietara. Etorkizunean euskaldunen dentsitate altuko herri edo arnasgune izaten segitzeko ezinbertzekoa izanen da, gure herrietako kultur eta hizkuntza aniztasuna aitortuta, etorri berriak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea, eta belaunaldi berriak euskalduntzea. Arestian aipatutako 2016-2019 aldirako plan estrategikoan kanpotik Nafarroa etorritako herritarrek euskara ikas dezaten sustatzea berariaz aipatzen da helburu estrategiko bezala⁹.

3 Ildo sozio-ekonomikoaren lehentasunaz hainbat egileren lanak hartu ditugu aintzat. Amonarrizen Euskararen bidegurutzetik (Elkar, 2019) liburuan bertan aipatzen da. Horrez gain, Udaltop topaketaren 2020ko gaia izan da ("Ireki leiho bat lan munduari"), eta topaketa horretan hitzaldi nagusia Jon Sarasuak eskaini du, "Lan eremuko uhinaldiaz" izenburupean; topaketa horrekin lotutako dokumentazio guzia www.udaltop.eus webgunean dago. Aitzinetik ere, Topalabe taldeak egindako gogoetan ere arlo sozio-ekonomikoak duen lehentasuna azpimarratzen da ("Berrindartu eta jauzi", www.topagune.eus).

4 Topalabearen "Berrindartu eta jauzi" dokumentuan hala jasotzen da, eta Amonarrizek ere berdin dio *Euskararen bidegurutzetik liburuan*.

5 "Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)" dokumentua www.euskarabidea.es webgunean dago ikusgai.

6 "Kontseiluaren urteko irakurketa eta ondorioak. 2019" dokumentuan irakur daiteke, www.kontseilua.eus webgunean.

7 "Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)" dokumentua www.euskarabidea.es webgunean dago ikusgai.

8 "Aniztasun hori iritsi da, beraz, gure eskoletara, geletara, osasun-zerbitzuetara, ostalaritzara, zaintza lanetara. Eta ez dakigu oso ondo nola jokatu, eta nola aurre egin gurean indartzen ari diren joera xenofobei (...) Euskalgintzak lan-esparru zabala du aurrean, harreman-sare horiek sortzen eta estutzen". Kike Amonarriz Gorria. *Euskararen bidegurutzetik* (Elkar, 2019).

9 Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)", 47 or.

Euskalgintzako egituren berrantolaketa¹⁰

Arestian aipatu da biziberritze prozesuak hurrengo hamarkadetan izanen dituen erronkei aurre egiteko euskalgintza sendo eta ongi egituratuta beharko dituela. Aldiz, eragile aunitzen gogoetetan ikus daitekeenez, euskalgintzako egitura gehienek gehiago erantzuten diote azken hamarkadetako egoerari, gaur egungoari baino. Hortaz, egiturak birpentsatzeko eta behar diren egokitzapenak egiteko unea dela irizten diote. Eta gogoeta hori euskalgintza osatzen duten bi hanketan, sozialean nahiz instituzionalean, egin beharra azpimarratzen dute.

Bi hanka horiek sendoturik, garrantzitsua izanen da, halaber, euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren arteko elkarlana, bien arteko estrategiak eta lan dinamikak ahalik eta gehien sinkronizatzea. Azken urteotan hainbat egitasmo lankidetzara publiko-sozialaren bitartez garatzen hasi direla ikusten da, Euskaraldia kasu.

Horrez gain, euskalgintzatik euskararen gainean erabiltzen diren diskurtsoak egokitu beharra ere aipatzen da, batetik euskararen egoera soziala eta soziolinguistikoa aldatu delako, eta, bertzetik, orain arteko diskurtsoekin zailtasunak daudelako hainbat sektoretara iristeko (gazteak, hizkuntzarekiko atxikimendu txikia duten euskal hiztunak, mi-granteak...).

Euskalgintzak egin beharreko gogoeta honetan garrantzitsua da bertze arloetan topa daitezkeen erduei begiratzea. Azken urteotan aunitz aipatu da feminismoaren inguruko mugimenduak euskalgintzari egiten ahal dien ekarpena, balioei zein antolaketa moduei dagokienez¹¹.

COVID-19ak eragindako osasun egoeraren ondorengoa

Arestian aipatu da COVID-19ak eragindako osasun egoerak mankomunitateak egin nahi zuen gogoeta parte hartzailea aldarazi duela. Baina, zalantzarik gabe, osasun egoeraren ondorioak 2021-2024 planean eta horren garapenean ere nabaritutako dira, eragin hori nolakoa eta zenbatekoa izanen den oraingoz ezin jakin badaiteke ere.

Krisialdiak ezinbertzean aldaketak ekarriko dituela aurreikusita, Kontseiluak “Geroa euskaratik” izeneko dokumentua kaleratu zuen ekainean. Hizkuntza eskubideak erdigunera ekarri eta geroa euskaratik ere eraiki behar dela aldarrikatuz, euskara bertakotzen, gerturatzen eta saretzen laguntzen duen transmisio uhala dela oinarri hartuta. Hori oinarri hartuta, hainbat neurri proposatu ditu ondoko arloetarako: hezkuntza, hezkuntza ez-formala, helduen euskalduntzea, euskal kultur sistema, hedabideak, ingurune digitala, lan mundua eta sustapena¹².

¹⁰ Batik bat Topalabearen “Berrindartu eta jauzi” dokumentutik hartu dira erreferentziak, baita Amonarrizen Euskararen bidegurutzetik liburutik ere. Horrez gain, aintzat hartu dira “Nola antolatuko da etorkizuneko euskaltzaleen mugimendua?” izenburupean Bilbon 2020-02-06an burutu zen Topaldia jardunaldiko gogoetak.

¹¹ Bi mugimenduok lotzen dituen gogoeta aunitz egin da Euskal Herrian azken urteotan. Horiek guztiak ongi laburbiltzen dira Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek idatzitako *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismoa eta feminismoa euskarara* liburuan (Lisipe, 2019).

¹² Kontseiluaren “Geroa euskaratik. Elkar hartuz, elkar zainduz” dokumentua www.kontseilua.eus webgunea dago ikusgai.

PLANAREN OINARRIAK

Bortzirietako Euskararen II. Plan Estrategiko hau prestatzerakoan honako kontzeptu hauek hartu dira oinarritzat:

Bortziriak, euskararen arnasgune



Eskualde ikuspegia




Herritarren parte hartzea



Entitate eragileak



Komunikazioa





Bortziriak, euskararen arnagune

Definizioz Bortzirietako bortz udalerriak udalerri euskaldunak dira; hala deitzen zaie herritarren % 70 baino gehiagok euskaraz dakiten udalerriei. Maiz eta erraz erraten da, gainera, eskualde osoa euskararen arnagune dela. Alabaina, arnagunearen kontzeptua euskararen erabilerarekin eta bizitasunarekin lotzen da. Honelaxe definitu zuen Mikel Zalbidek kontzeptu hori¹³:

“Euskaldunen kontzentrazio demografiko handia du arnaguneak: euskaraz dakite bertako herritar guztiek edo gehienek eta, bereziki, eguneroko mintzajardun arruntean guztiak edo gehienak euskaraz izaten dira arnagune barruan. Euskaraz egiten da hor, besterik gabe. Gizarte arau bizi da hori.”

Definizio hori aintzat harturik nekez erran dezakegu eskualde osoa arnagune denik. Halere, zalantzarik gabe, eta aurreko plangintzaldian ere hala jaso zen, eskualde honek badu arnagune izateko bokazioa eta aukerak.

Arnagune edota udalerri euskaldun jo diren eremuei trataera berezia ematea ezinbertzekoa da, euskarak gizarte bizitzan duen nagusitasuna zainduz eta sendotuz. Izan ere, hizkuntza guztiak behar dituzte kualitatiboki osoak eta trinkoak diren gizarte guneak, beren biziberritzea eta garapena bermatzeko.

Arnagunearen kontzeptua oinarritzat hartzerakoan bat egiten du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen oinarriekin. Kontuan hartu behar da UEMAko partaide direla Bortzirietako lau udalerri (Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzi) eta epe laburrean aurreikusten dela Lesakako Udalak ere erakunde horretan sartzeko urratsa egitea. Bi mankomunitateen helburu zein jardueretan arnagunearen kontzeptua oinarri garrantzitsua da.



Eskualde ikuspegia

Udalerri bakoitzak izan ditzakeen berezitasunak eta beharrak alde batera utzi gabe, plan honek Bortzirietako eskualdea hartuko du oinarri. Eskualde naturaltzat har dezakegu, eskualde izaera mendeetan garatu baita. Bortzirietako identitatea eta idiosinkrasia historian garatu direla aintzat hartzeaz gainera, administratiboki ere hori da euskara mankomunitatearen eta bertze hainbat erakunderen lan eremua, eta halaxe jarraitzea aurreikusten da 2021-2024 epealdian bederen.

Baina bertzalde ez da ahanzi behar Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4-2019 Foru Legeak ezarritako eskualdetzearen arabera, Bortzirietako udalerriak Bidasoa izeneko eskualdearen parte izatea aurreikusten dela, gaur egun Malerreka Mankomunitatea osatzen duten udalerriekin, Baztango Udalarekin eta Urdazubi eta Zugarramurdiarekin batera. Foru lege horrek eskualde mailako egitura horiei hainbat eskumen esleitzen dizkio, tartean euskara zerbitzuarekin lotutakoak, eta ondoko urteetan ikusi beharko da Bidasoa eskualdea nola eratzen den eta esleitutako eskumenak nola garatzen diren.

13 Mikel Zalbideren “Arnaguneak, etorkizuneko erronkak” artikulua, www.soziolinguistika.eus webgunean dago kontsultagai.



Herritarren parte hartzea

Euskara mankomunitatearen estatutuetan jasoa dago, egituran bertan, herritarren parte hartzea oinarri modura. Euskara batzordeen eta Aholkularitza Batzordearen bitartez hartu dute parte herritarrek mankomunitatearen egituran nahiz erabakietan. Formula hori, ordea, agortutzat eman daiteke, aspaldi ikusi baita parte hartzeko modu hori erabat apaldu dela. Arestian aipatu bezala, epe laburrean egingen da Bortzirietan euskalgintza birpentsatzeko eta berrantolatze gogoeta.

Baina hortik haratago, herritarren parte hartzea aipatzen denean, erran nahi da herrietako norbanako eta eragileek aukera izanen dutela planaren diseinuan nahiz garapenean parte hartzeko. Herritarrekiko elkarlan hori euskalgintzako egituretatik harago ere joatea komeni da, helburu eta jarduera batzuk arlo zehatzetako eragileekin landu beharko baitira, baita euskalgintzako egituraren parte hartzen ez dutenekin ere.



Entitate eragileak

Testuinguru orokorrari buruzko atalean aipatu da euskalgintzako egiturak birpentsatu eta berrantolatu beharra dagoela. Horrez gain, aipatu den bidegurutze horretatik ateratzeko, euskara bizitza soziopolitikoa gidatuko duen bide orriaren erdigunera ekarri beharra ere aipatzen da. Alegia, hizkuntzarenak bazterreko kezka edota euskaltzale bo-luntario, euskara batzorde edo zerbitzuetara mugatuko den gai periferikoa izateari utzi behar dio, eta edozein enpresa, erakunde ikastetxe edota era guzietako elkarteetako erdigunean kokatuko den helburu estrategiko nagusietako bat bilakatu behar du, horiek guziaz hizkuntza biziberritzeko prozesuaren lider bihurtuz.

Hori oinarri hartuta, eskualdeko tokiko erakundeei dagokienez, hizkuntzaren normalizazioa ezin da bakarrik euskara mankomunitatearen bizkar gelditu; beharrezkoa da bertako erakunde publiko guzietan euskara erdigunean jartzea eta entitate eragileak izatea. Pilar Kaltzadak¹⁴ tokiko entitateen kategorizazio bat proposatu zuen. Lau kategoria bereizi zituen, hizkuntzaren sustapenean izan dezaketen inplikazioan graduazio bat eginez: informatzaileak, laguntzaileak, sustatzaileak eta eragileak. Kaltzadaren kategorizazioaren arabera entitate eragileak dira euskararekiko konpromiso argia erakusten dutenak, eta bere ekintzetan horrekiko koherente direnak. Bide erakusle izateko helburua jarri zien, hau da, honakoak dagozkie: ekimen “erakusgarriak” bultzatzea, euskarazko sozializazioa bermatzea adin-tarte guztietan eta horretarako baliabideak jartzea eta jar daitezen eragitea.

Entitateen izaera eragile hori, ordea, euskara mankomunitateari ez ezik, batez ere udalei, baina baita udalek parte hartzen duten gainerako entitateei ere, eskatu behar zaie. Beharrezkoa da guzietan konpromiso hori berenganatzea.

14 Kategorizazio hori “Nafarroan belaunaldi berriak euskaraz hazteko estrategia” txosten argitaragabea jasotzen da. Nafarroako toki entitateetako euskara zerbitzuetako teknikariek Pilar Kaltzadaren aholkularitzapean egindako gogoeta prozesuaren emaitza da txosten hori.



Komunikazioa


Komunikazioa planaren oinarritzat hartzerakoan informazioa emateaz haratago jo nahi da. Plan estrategikoaren helburuetan herritarren aktibazioa eta, neurri batean, hizkuntza portaeren eraldaketa bilatzen direnez, informatze hutsarekin ezin dira helburuak bete; herritarren emozioetan ere eragin behar da, horietan gertatzen delako pertsuasioa eta aktibazioa eragiten dituen eta portaerak aldatzen dituen komunikazioa. Horrez gain, komunikazio egoki batek lagunduko du planaren helburuak eta jarduerak ikusgarri izan daitezen.

Komunikazioa bi mailatan landu behar da: barnekoan eta kanpokoan. Barne komunikazioaz ari garenean planean aurreikusten diren helburu eta jardueren garapenean mankomunitatearekin batera arituko diren edozein motatako eragileekikoa (toki entitateak, euskalgintzako eragileak nahiz bertzelakoak) hartu behar da kontuan. Kanpo komunikazioa batik bat herritarrei bideraturikoa da, planaren helburuen eta jardueren berri emateko helburua izateaz gainera, haien hizkuntza portaerak aldatzeko (edo indartzeko) eta aktibatzeke asmoarekin; horretarako off line eta online kanalak erabiliko dira.

ZE HAR LERROAK

Planaren ildo eta arlo guzietan eragiten duten ideiak, kontzeptuak eta balioak dira zehar lerroak. Honako hauek hartu dira aintzat:

Aktibazioa eta sentsibilizazioa



Kultura eta hizkuntza aniztasuna



Jasangarritasuna



Genero ikuspegia





Aktibazioa eta sensibilizazioa

Hizkuntza normalizatzeko planek ohikoa izaten dute herritarrak euskararekiko sensibilizatzea helburu gisa jasotzea eta horrekin lotutako jarduerak antolatzea. Are gehiago, erraten ahal da oro har euskararen ezagutza nahiz erabilera sustatzeko ekintza ororen atzetik dagoela herritarrak hizkuntzarekiko sensibilizatzea.

Sensibilizatzeko zeharkako xede hori gainditu nahirik, hizkuntza aktibazioa jaso da plan honetan zehar lerro modura. Alegia, hizkuntza normalizatu ahal izateko eraldaketa prozesu kolektibo bat behar da, eta prozesu horretan norbanakoek, administrazioek, gizarte eragileek edota enpresek modu aktibo eta kontzientean parte hartu behar dute. Hizkuntza aktibazioa honela definitu izan da: “praktika bezala euskaraz aritzeak nagusitasun soziala izan dezan abiatzen dugun elkarlan prozesua burutzeko modua. Horretaz ari gara hizkuntza-aktibazioaz ari garenean.”¹⁵ Alegia, bilatzen dena da hiztun eta eragile bakoitza norbere eremuan euskara ikasteko, erabiltzeko eta aldarrikatzeko aktibatzea.

Planak berariaz landu beharreko arlo modura jasotzen ditu aktibazioa eta sensibilizazioa, baina horrez gain biak zehar lerro modura presente egonen dira gainerako ildo eta arlo guzietan.



Kultura eta hizkuntza aniztasuna

Datuek erakusten digutenez, 2019an Bortzirietan erroldatutakoen % 8,7 atzerrian jaiotakoak dira, eta azken hamabortz urteetan kopuru hori bikoiztu egin da. Hortaz, bista-koa da azken hamarkadotan eskualdean bizi direnen artean kultur eta hizkuntza aniztasuna areagotu dela. Eskualdean bizi diren herritar guzien bizikidetza bermatze aldera, garrantzitsua da aniztasun hori aintzat hartzea.

Betiere euskara ardatz duen kultur eta hizkuntza aniztasunaz ari gara. Berariaz landuko den arloa izateaz gainera, aniztasunarena zehar lerrotzat jotzen da, gizarte bizitzaren eta normalizazio planak jasotzen dituen ildo eta arlo guzietan aintzat hartzekoa delakoan.

15 Definizioa Zesar Martinez, Amaia Balda eta Imanol Larrearena, BAT aldizkaria, 2018. http://www.soziolinguistika.eus/files/05_zesar_martinez_et_al_107.pdf



Jasangarritasuna

Jasangarria ez den gizarte eredu batean bizi gara, eta iritzi zabaldua da egungo eredu ekonomikoari ezin izanen zaiola denboran mugarik gabe eutsi, egungo sistema ekonomikoa eta oreka ekologikoa bateraezinak baitira.

Mankomunitateak, erakunde publikoa den heinean, iraunkorrak ez diren garapen eskemak saihestu behar ditu, eta bere jarduerak ahalik eta ingurumen inpaktu txikiena izan dezan lan egin behar du. Hortaz, jarduera guzietan ingurumena babestea eta tokiko baliabideak modu iraunkorrean kudeatzea aintzat hartuko dira.



Genero ikuspegia

Gauza jakina da eredu patriarkala nagusi den gizarte batean bizi garela, emakumeen gaitasunak eta eskubideak mugatzen dituen ereduan. Edozein erakunde eta entitatek, are gehiago erakunde publikoek, genero berdintasunaren alde egin behar dute, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bizitzako esparru guzietan lortzeko helburuarekin. Hizkuntza normalizazioaren esparruak bere egin behar du helburu hori, eta aintzat hartu bere analisi, jardun eta ebaluazio guzietan.

EUSKARAREN EGOERA BORTZIRIETAN

Atal honetan euskararen egoera laburbiltzen duten datu demografiko eta soziolinguistiko kuantitatibo orokorrak ematen dira, plana ulertzeko funtsezko datuak direlakoan.

Datu demografiko orokorrak

Bortzirietan azken 20 urteotan biztanle kopuruari eutsi zaio, 2001etik 2011ra hazkundera izan zen, eta 2011tik 2019 populazioa egonkor mantendu da. Herri bakoitzaren joera demografikoa desberdina izan da. Epealdi osoa kontuan hartzen badugu, biztanleak irabazi dituzte nabarmen Berak, Lesakak eta Igantzik, eta galdu Etxalarrek, eta, batez ere, Arantzak. Azkeneko hiru urtekoari erreparatuz gero, Lesakan, Igantzin eta Etxalarren igo da zertxobait biztanle kopurua.

2001	2011	2016	2019
8.233	8.670	8.539	8.526

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

Biztanleria adin taldeen eta generoaren arabera

BIZTANLEAK HERRIZ HERRI, GENEROAREN ARABERA ETA GUZTIRA 2019					
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira
Arantza	316	% 52,9	281	% 47,1	597
Bera	1.830	% 49,0	1.906	% 51,0	3.736
Etxalar	427	% 52,5	386	% 47,5	813
Igantzi	339	% 53,1	300	% 46,9	639
Lesaka	1.407	% 51,3	1.334	% 48,7	2.741
Bortziriak	4.319	% 50,7	4.207	% 49,3	8.526

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

Generoaren araberako banaketan, erraten ahal da, zenbat eta herri txikiagoa, orduan eta handiagoa dela gizonezkoan proportzioa, herri bakarrean da emakumezkoen zenbatekoa gizonezkoena baino altuagoa, Beran hain zuzen ere.

BIZTANLEAK HERRIZ HERRI ETA ADIN TALDEKA 2019


	0-14		15-25		25-64		64tik gora		Guztira	
Arantza	94	% 15,7	38	% 6,4	318	% 53,3	147	% 24,6	597	% 7,0
Bera	626	% 16,8	325	% 8,7	2.043	% 54,7	742	% 19,9	3.736	% 43,8
Etxalar	136	% 16,7	66	% 8,1	414	% 50,9	197	% 24,2	813	% 9,5
Igantzi	103	% 16,1	67	% 10,5	322	% 50,4	147	% 23,0	639	% 7,5
Lesaka	405	% 14,8	253	% 9,2	1.457	% 53,2	626	% 22,8	2.741	% 32,1
Bortziriak	1.364	% 16,0	749	% 8,8	4.554	% 53,4	1.859	% 21,8	8.526	% 100,0

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

Adin taldeei dagokienez, haurrak eta gazteak biztanleriaren laurdena dira; helduen adin taldea da jendetsuena, biztanleriaren erdia baino gehiago.

Atzerrian sortutako biztanleak

BIZTANLERIA JAIOTERRIAREN ARABERA BILAKAERA 2004-2019



Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

Biztanleriaren jatorriari dagokionez, bilakaera izan da herrian bertan sortutakoen proportzioa jaistea, Nafarroako bertze herri batean jaiotakoena mantentzea (% 15 inguru horretan), bertze probintzietan jaiotakoena zertxobait igotzea (ia % 20ra), eta atzerrian jaiotakoena bikoiztea 15 urtean (% 4,3tik % 8,7ra).

ATZERRIAN JAIOTAKOAK HERRIZ HERRI, GENEROAREN ARABERA ETA GUZTIRA 2019

	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
Arantza	0	0,0	13	4,6	597	2,2
Bera	204	11,1	236	12,4	3.736	11,8
Etxalar	25	5,9	33	8,5	813	7,1
Igantzi	26	7,7	26	8,7	639	8,1
Lesaka	84	6,0	94	7,0	2.741	6,5
Bortziria	339	7,8	402	9,6	8.526	8,7

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

Atzerrian jaiotakoen taldeari begiratzen badiogu, bere pisu erlatiboa kontuan hartuta, nabarmentzekoak honako hauek dira: alde batetik, Beran dagoela proportziorik altuena (% 11,8), eta bertzetik, gehiago direla emakumezkoak gizonezkoak baino (ia bi puntuko aldea). Alde hori nabarmenagoa da Arantzaren eta Etxalarren.

ATZERRIAN JAIOTAKOAK BORTZIRIETAN, GENEROA ETA KONTINENTEAK 2019

	Guztira		Europa		Afrika		Amerika	
Gizonezkoak	339	% 45,7	194	% 55,1	8	% 34,8	133	% 37,2
Emakumezkoak	402	% 54,3	158	% 44,9	15	% 65,2	225	% 62,8
Guztira	741	% 100	352	% 47,5	23	% 3,1	358	% 48,3

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

Jatorriei begiratzen badiugu, bi multzo handi eta pareko ditugu (bere aniztasun guztiarekin), Europatik etorritakoena, eta Ameriketatik etorritakoena. Jatorria eta generoa gurutzatzen baditugu, ondorioa da Europatik gizonezko gehiago heldu dela eta Afrikatik eta Ameriketatik nabarmen emakumezko gehiago.

Datu demolinguistiko eta soziolinguistiko nagusiak

Hizkuntza gaitasuna

POPULAZIOA ETA LAGINA 2011¹⁶

	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
Biztanleak (N)	631	3.611	793	620	2.726	8.381
Lagina (n) %95,5 ¹⁷	245	360	266	243	349	382
Galdeketak (n)	232 ¹⁸	533 ¹⁹	285 ²⁰	265 ²¹	447 ²²	1.740²³

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

2011ko ikerketa (zentsoa) lagin bidez egin zen, eta emaitzetan badira akats tartea (ikus 17-21 bitarteko oin oharrak, 2011ko zentsuko datu guzietarako balio dutenak). Horrek zaildu egiten du 2011ko datuen irakurketa, baita aitzineko datuekiko konparaketa ere. Daturik fidagarriena Bortzirietakoa da; herriz herriko datuetan akats tartea handixeagoak dira. Zenbat eta handiagoa herria, orduan eta txikiagoa da akats tartea.

EUSKARA GAITASUNA / HIZTUN TIPOLOGIAK 2011

	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
Euskaldunak %	594 94,2	2.167 60,0	576 72,6	547 88,1	2.072 76,0	5.954 71,0
Ia-euskaldunak %	27 4,3	757 21,0	102 12,9	57 9,2	376 13,8	1.320 15,7
Erdaldunak %	7 2,1	558 15,4	104 13,2	15 2,3	234 8,6	918 11,2
Esleitu gabe* %	2 0,4	129 3,6	11 1,3	2 0,4	43 1,6	188 2,2
GUZTIRA	631	3.611	793	620	2.726	8.381

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

Herrien artean, hiru abiadura ditugu euskaldunen zenbatekoari dagokionez, Arantza eta Igantzi (10etik 9 gutxienez), Lesaka eta Etxalar (hiru laurden inguru), eta Bera (bi heren eskas)

16 Ez dugu datu berririk izan 2021era arte. Irakurketa sinkronikoa egin ahal izan dugu soilik, egungo egoera 2011koa dela suposatuz.

17 %95,5eko konfiantza maila eta +-5eko akats tartea.

18 +- 5,2ko akats tartea.

19 +- 4,0ko akats tartea.

20 +- 4,7ko akats tartea.

21 +- 4,7ko akats tartea.

22 +- 4,3ko akats tartea.


23 +- 2,1eko akats tartea.

EUSKARA GAITASUNA: HIZTUN TIPOLOGIAK BILAKAERA

%	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
2001	79,1	12,4	8,5
2011	72,7	16,1	11,2

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak. Erantzunik gabeak kenduta.

2001etik 2011ra euskaldunen zenbatekoak beheiti egin zuen Bortzirietan²⁴, arrazoi sozio-demografikoak tarteko: nabarmenenak belaunaldi euskaldunenen desagerketa eta mugikortasun zein migrazio prozesu berriak dira.



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak. 2011ko datuetan, esleitu gabeak kenduta.


Herriz herri euskararen ezagutzak izan duen bilakaera aztertuta (euskaraz ongi mintzatzeko gaitasuna duten herritarrei erreparatuta), guztietan antzeman da beheranzko joera, batez ere 2001etik 2011ra. Datuok bat egiten dute udalerrri euskaldunetan 1990tik antzematen hasi zen joerarekin. Gurean 2001etik 2011era gertatu da jaitsierarik handiena. Ikusteke dago zer emaitza izanen den 2021ean. Beran eta bereziki Etxalarren izan dira beherakadarik nabarmenenak.

24 Hipotesirik baikorrenean 5 puntuko jaitsiera, eta hipotesirik ezkorrenean ia 9 puntukoa.

HIZKUNTZA GAITASUNA ETA ADIN TALDEA 2011					
%	ONGI	NEKEZ	DEUS EZ	ESLEITU GABE	ADIN TALDEAREN PISUA
2-14	85,2	6,0	3,5	5,4	13,0
15-24	88,1	0,2	10,4	1,2	8,8
25-64	68,9	12,6	16,8	1,7	59,2
65etik gora	72,7	8,0	17,0	2,3	19,0
GUZTIRA	73,4	9,8	14,6	2,2	100

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

Haurren eta gazteen artean gehiago nabarmena dira euskaraz ongi mintzatzeko gaitasuna dutenak; datu baikorra da belaunaldi berriak izatea euskaldunenak. Datuek erakusten digute bereziki helduen adin taldean dela baxuena euskaraz ongi dakitenen zenbatekoa.



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

Euskararen gaitasunak gora egin du azken hamarkadetan haur eta gazteen artean, baina 2001etik jaitsiera gertatu da. Helduen artean mantendu egin zen 2001era arte, eta belaunaldi gazteen kasuan bezala, jaitsiera izan da 2001etik 2011ra. Ordea, helduen kasuan hamarkaden joanean baxuagoa da euskaraz ongi mintzatzen direnen helduen zenbatekoa. Adinekoen artean euskaraz ongi mintzatzen direnen proportzioak behera egin du azken hamarkadetan.

Lehen hizkuntza edo familia bidezko transmisioa

LEHEN HIZKUNTZA 2011

	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
Euskara	554	1.672	495	504	1.738	4.963
	87,8	46,3	62,4	81,4	63,8	59,2
Gaztelania	37	1107	122	57	531	1.855
	5,9	30,7	15,4	9,2	19,5	22,1
Biak	27	458	63	52	353	952
	4,3	12,7	1,9	8,4	12,9	11,4
Bertzerik	11	219	95	0	37	363
	1,7	6,1	12,0	0,0	1,4	4,3
Daturik ez	2	154	18	6	67	248
	0,3	4,3	2,3	1,0	2,5	3,0
GUZTIRA	631	3.610	793	619	2.726	8.381

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

Haurren adin taldean dugu lehen hizkuntza euskara izan dutenen proportziorik altuena (65etik gorakoak kenduta).

LEHEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA

%	EUSKARA	GAZTELANIA	BIAK	BERTZERIK
2001	73,5	18,7	6,9	0,5
2011	61,0	22,8	11,7	4,5

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak. Erantzunik gabeak kenduta.

Euskara etxean jaso duten biztanleen proportzioa txikiagoa da 2011n 2001ean baino (euskara²⁵ edo euskara eta gaztelania²⁶ biak ere etxean jaso dutenena). 2001ean %80,4 eta 2011n % 72,7. Familia bidezko transmisioan euskarak pisu gutxiago dauka.

25 Etxeko euskaldunak.

26 Jatorrizko elebidunak.

BORTZIRIAK TRANSMISIOA 2011		
LEHEN HIZKUNTZA		EUSKARAZ ONGI
Euskara	Biak	
4.963	952	
% 61,0	% 11,7	
5.915		6.154
% 72,7		% 75,1
239		
+ 2,4		

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak. Erantzunik gabeak kenduta.

Haurren adin taldean, gehiago dira euskaraz ongi mintzatzen direnak, etxean euskara (ere) jaso dutenak baino; hori datu positiboa da. Ifrentzua: euskara familian duten haurren proportzioa 2001ean baino txikiago dela erratera ausartzen ahal gara.

BORTZIRIAK TRANSMISIOA 2011 (0-14 urte)	
LEHEN HIZKUNTZA EUSKARA+BIAK	EUSKARAZ ONGI
78,3	85,2
+ 6,9	

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

Datu honek erakusten du eskolak hizkuntzaren transmisioan duen garrantzia: euskara etxeko hizkuntzatzat ez duten haur aunitz euskalduntzen da euskarazko hezkuntzari esker.

Euskararen erabilera

Erabilera etxean (zentsoko datuak, galdeketa bidez)

ETXEAN GEHIEN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA 2011						
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
Euskara	566 89,8	1.135 31,4	410 51,7	428 69,0	1410 51,7	3.950 47,1
Gaztelania	29 4,5	1.462 40,5	168 21,3	89 14,4	755 27,7	2.503 29,9
Biak	31 4,9	683 18,9	121 15,3	96 15,5	468 17,2	1.400 16,7
Bertzerik	0 0,0	183 5,1	83 10,4	2 0,3	26 1,0	294 3,5
Daturik ez	5 0,8	148 4,1	11 1,3	5 0,8	66 2,4	234 2,8
GUZTIRA	631	3.611	793	620	2.726	8.381

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

Herrien arteko aldeak nabarmenak dira. Arantzan etxean euskaraz egitea da araua, Beran, aldiz, etxeen heren batean soilik da euskara gehien erabiltzen den hizkuntza.

ETXEAN GEHIEN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA ETA ADIN TALDEA 2011						
%	Euskara	Gaztelania	Biak	Bertzerik	Daturik ez	GUZTIRA
2-14	58,1	13,1	20,3	3,2	5,4	13,0
15-24	52,3	16,9	19,3	8,8	2,7	8,8
25-64	43,9	34,5	15,8	3,4	2,4	59,2
65etik gora	47,2	33,0	15,9	1,6	2,3	19,0
GUZTIRA	47,1	29,9	16,7	3,5	2,8	100

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

Adin taldea zenbat eta gazteago, orduan eta altuagoa da etxeko erabilera. Datu positiboa da, familian hurrei euskara transmititzeko eta familian euskaraz egiteko hautua adierazten dituelako. Edonola ere, haurrentzako espazio euskaldunagoa da erabilera informala (kaleko erabilerari erreparatzen badiogu), etxeko erabilera baino.

ETXEAN GEHIEN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA BORTZIRIETAN 2011

%	EUSKARA	GAZTELANIA	BIAK	BERTZERIK
2001	57,5	20,1	21,8	0,6
2011	48,5	30,7	17,2	3,6

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

2001etik euskararen erabilerak atzeraka egin du etxean, oro har.

Erabilera kalean (kaleko erabileraren datuak, behaketa bidez)

4. grafikoa: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. Bortziriak, 2006-2019 (%)




Iturria: Bortzirietako hizkuntzan erabileran kale-neurketak. Bortzirietako Euskararen Mankomunitatea, 2006-2016 eta Soziolinguistika klusterra 2019.

Kale erabileran gorakada antzeman da Bortzirietan azkeneko neurketan. Datu positiboa da, are gehiago kontuan hartzen badugu 2019ko neurketa izan dela metodologiko-ki sendoena. Hala ere, hain juxtu arrazoi horregatik, merezi du bilakaerari buruzko ondorioak ematerakoan tentuz ibiltzea: goranzko joera antzematen bada ere, aitzineko neurketetan behatutako laginak ez dira hain fidagarriak. Gauzak horrela, 2021eko neurketako emaitzen zain gelditu behar da, joera goranzkoa ote den berresteko. Nafarroan euskararen ezagutza %75-%100ekoa den gune soziolinguistikoan, kale erabilera % 63,9koa zen 2016an²⁷.

27 Euskal Herriko hizkuntzen kale erabileraren neurketa, 2016.

grafikoa: EUSKARAREN KALE-ERABILERA. Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka, 2019 (%)



Iturria: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2019. Soziolinguistika Klusterra.

Herrien arteko aldeak nabarmenak dira berriz ere. Erraten ahal da herriaren tamainak baduela kaleko erabilerarekin zerikusirik: zenbat eta handiagoa herria, orduan eta txikiagoa kaleko erabilera. Araua hori Lesakak hausten du.

ERABILERAREN BILAKAERA ADIN TALDEKA BORTZIRIETAN 2013-2019 %


	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK
2013	79	76	46	44
2016	83	66	56	47
2019	84	74	63	50

Iturriak: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2013. BEM.
Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2016. Soziolinguistika Klusterra eta BEM.
Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2019. Soziolinguistika Klusterra.

Haurrak dira neurketaz neurketa euskara gehien erabiltzen dutenak. Haurrak euren artean solastatzen direnean oraindik eta altuagoa da erabilera. Haurrek nagusiekin dituzten harremanetan, haurrak ez direnean solasean ari, erabilera apaltzen da. Euskara transmisioarekin lotzen da, helduek hurrei (gurasoek seme-alabei) euskaraz egiten diete oro har, eta haurren artean euskaraz egitea da araua. Adinean gora egin ahala, ordea, euskararen erabilera apaltzen da.


Hiztun berriak

Hauxe da Bortzirietako ikastetxeetako matrikulazio datuen bilakaera ikastereduen arabera:



Datuek erakusten duten moduan, Bortzirietako gurasoen gehiengo handi batek euskarazko hezkuntzaren aldeko apustua egiten du. Gutxiengo bat da B ereduaren eta A ereduaren aldeko hautua egiten duena, baina ez gutxietsi beharrekoa.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea: matrikulazioaren bilakaera Bortzirietako Euskaltegian



Euskaltegiko matrikulazioetan urteen joanean gorabeherak izan badira ere, 2016tik goranzko joera antzeman da. Horretan zerikusia izanen zuten dirulaguntza sistema berriak eta sustapen kanpainen. Nolanahi ere, euskara ikasteko edo hobetzeko behar potentziala duten herritar helduen artean²⁸, gutxiengo batek baino ez du euskaltegian izen emateko urratsa egiten.

Euskararen egoeraren zertzelada nagusiak arloz arlo

Haur-gaztetxoaren sozializazioa

Familia

Arrazoi sozio-demografikoak direla medio, etxe giroan euskararen erabilera jaitsi egin da, nahiz eta familia bidezko euskararen transmisioari sendo eusten zaion.

Hezkuntza

Euskarazko hezkuntza nagusi da Bortzirietan, eta egoera onean gaude unibertsala izan dadin; ikastetxe guztiek eskaintzen dute D eredua. Ordea, bada urtero euskara ikasten ez duen haur multzo bat, ez gutxietako modukoa.

Aisialdia

Haurren eta gazteen aisialdian euskarazko aisialdi eskaintza zabaldua bada ere, euskarazko jardura ludikoaren eskaintza orokortzeko oraindik ere bada zeregin franko.

Kanpotik gurera bizitzera etorriak

Jatorri eta kultur anitzetako haurrek euskara ikastea, bereziki berriki ailegatu direnean eta euskararekiko hagitx harreman txikia dutenean, erronka handienetakoa da euskara ardatz izanen duen gizarte kohesioa helburu.

Hiztun berriak

Helduaroan euskara ikasten duten herritarren artean bada aniztasun handia. Euskara ikasteko matrikulazioen beheranzko joera eten, eta euskalduntzeko mezua herritar eta giza talde gehiagorengana ailegatu da. Sektoreak behar du berrikuntza eta erakunde publikoen aldetik bultzada, eta hiztun berriek aitortza eta ikusgarritasun handiagoa.

Gizarte erabilera

Aktibazioa eta sentsibilizazioa

2018ko Euskaraldiak balio izan du herritarrek aktibatze, erabilera handitzeko, eta zenbait hizkuntza ohitura aldatzeko. Bide horretan sakondu beharra da, herritar eta hiztun kontziente eta ahaldunduak gero eta gehiago izateko.

28 2011ko zentsuko datuen arabera, bai zertxobait dakitelako, bai euskaraz deus ez dakitelako, Bortzirietan 25 eta 64 urte bitarteko 1460 herritar daude (helduen ia % 30).

Tokiko administrazioa eta zerbitzu publikoak

Tokiko administrazioa euskararen normalizazioan eredugarri da. Bortzirietako udal guztiak UEMAko kide dira, eta hori da gaur gaurkoz hizkuntza politika aurrerakoi baterako berme. Hala ere, zerbitzu publikoetan euskararen erabilera bermatzeko aunitz dago egiteko. Herritarrek Nafarroako Gobernu eta Estatuko administrazioen zerbitzuetan euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatzetik urrun gaude.

Arlo sozioekonomikoa eta garapen iraunkorra

Haur eta gazteen belaunaldietan euskararen ezagutza orokorra da, eta erabilera adierazleak baikorrak dira. Ordea, lan munduan eta jarduera ekonomikoan, euskararen egoera eta erabilera ahulak dira gaztelaniaren aitzinean; euskararen biziberritzean egindako ahalegina eta arnagune bezala eskualdeak duen potentziala galtzeko arriskuan gara.

Ingurune digitala

Teknologia berriak eta eremu digitala gaur egungo gizartean erdigunean daude. Tresna horien jabetzan, diseinuan eta erabileran euskara bezalako hizkuntza gutxituak berriz ere egoera zaurgarrian daude, nahiz eta teknologia berrietatik ere etortzen ahal den biziberritzearen aldeko aukerarik.

Tokiko hedabideak

Euskarazko hedabideak sistema global eta gero eta konplexuago batean proportzio nimiñoa dira. Tokiko hedabideak ekosistema sentibera baten parte dira, babes berezia behar dutenak. Bortzirietan, Ttipi-ttapa batik bat eta Xorroxin neurri apalagoan, egitasmo sendoak dira, eta herritarren artean horien kontsumoa hedatua da (Ttipi-ttapa da idatzizko hedabiderik irakurriena).

Kultura

Euskal kulturaren transmisioan, sorkuntzan, eraberritzean, prestigiatzean eta gozamenen daude hutsunerik handienak. Bortzirietan euskarazko ekitaldien eskaintza txukuna da, barneratua dago udal eta kultur eragileen aldetik eskaintza hori egin beharra. Kezkagarriagoa da globalizazioaren aroan, hizkuntza eta kultura hegemoniaren eduki kulturalak mugagabe zabal eta kontsumitu daitezkeen aroan, belaunaldi berriek euskal kulturarekin duten atxikimendua, iturri horretatik edan eta birsortzen/eraldatzen segitzeko.

Aisialdia eta kirola

Lan munduarekin bezala, eremu informala euskararentzat eskuratu beharreko eremua da, eta horrekin lotuta daude aisialdia eta kirola, non euskarazko eskaintza ez den beti bermatzen.

Gazteen euskarazko sozializazioa eta aktibazioa

Gazteen artean euskararen erabilerak sendo eusten badio ere, mehatxuak ez dira nolanahikoak: arlo sozioekonomikoa, esparru digitala, kultur, hedabide eta aisialdi eskaintzaren zati handi bat erdaren menpeko, etab. Kultur sorkuntzari eta gazteen aktibazioari erreparatu beharra zaie.

Hizkuntza aniztasuna eta harrera linguistikoa

Migrazio prozesuak areagotu dira, eta gure jendartea gero eta anitzagoa da, jatorri, kultura eta hizkuntza askotarikoak dituzten herritarrek osatua. Kultur eta hizkuntza aniztasuna baloretzat hartuta, euskara ardatz izanen duen gizarte kohesioa planteatzea da erronka. Harrera gizartearen eta etorri berrien elkar ezagutza, elkarguneak eta komunikazioa ezinbertzekoak dira.

HELBURUAK

Helburu orokorra

Bortzirietan euskararen biziberritzean aitzinera egitea eta arnagune izaera indartzea, norbanakoen eta mota guzietako gizarte eragile eta entitateen aktibazioa sustatuz.

Helburu zehatzak

1) Bortzirietako haur eta gazteen sozializazio prozesuan eragiten duten arloetan euskara ikasi eta erabiltzeko baldintzak bermatzea.

Bortzirietako haur eta gazte guztiak euskaraz hazteko baldintzak sortzea, eta euskara ikasi eta euskaraz bizitzeko eskubidea gauzagarri izan dadin, ingurune euskalduna elikatzea (familia, kultura, hezkuntza, aisialdia, lagunartea, identitatea, etab.) belaunaldi berrien euskarazko erabateko sozializazioa lortzeko.

2) Bortzirietan euskaraz hitz egiten duten herritarren kopurua handitzea.

Euskaraz jakinen duten hiztun gehiago izatea, bereziki gurera kanpotik bizitzera etorri diren jatorri anitzetako herritarren artean. Hiztun berrien ikusgarritasuna handitzea, erabilerarako jauzia egitea eta haien ikas prozesua eta emaitza prestigiatzea.

3) Gizarte bizitzaren arlo guzietan euskararen erabilera handitzea eta horretarako aukerak areagotzea.

Euskararen gizarte erabilera sendotzea, Bortziriak euskararen arnagune izan daitezen, eta arloz arlo, familian, lagunartean, administrazioan, aisialdian, kirolean, elkartegintzan, kulturean (transmisioa eta prestigiatzea), etorri berrien harreran, eremu digitalean, arlo sozioekonomikoan, etab., euskararen erabilera areagotzea, horretarako herritarrak eta gizarte eragileak aktibatu eta ahaldunduta, eta dinamika sozialak bizkortu eta babestuta.

Arlo sozioekonomikoari dagokionez, datozen urteotako erronka nagusia enpresa eta lan mundua euskalduntzeko pausuak ematea, eta euskaraz eskolatuak eta neurri handi batean bizi diren belaunaldi berriek modua izan dezaten lanean ere euskaraz aritzeko, horretarako egituretan aldaketak eraginez (enpresetan erabilera planak abian jarritz erraterako), eta sortzen diren egitura berrietan euskara hasieratik erabilera hizkuntza (nagusi) izan dadin, Euskal Herri mailako dinamika orokorrago baten barne parte hartuz, eta hainbat eragile publiko eta sozialekin elkarlanean arituz.


ILDO ESTRATEGIKOAK ETA LAN ARLOAK

Plan estrategiko honen bitartez honako ildo estrategiko hauek landuko dira:

Haur-gaztetxoen (<16 urte) sozializazioa




Hiztun berriak



Gizarte erabilera



Corpusa



Kudeaketa





HAUR-GAZTETXOEN (<16 URTE) SOZIALIZAZIOA:

- Etxea
- Eskola
- Aisialdia, kultura, kirola eta lagunartea

Belaunaldi berriak euskaldun hazi eta euskaraz bizitzeko helburuak ildo estrategiko oso bat osatzen du plan honetan. 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoak euskaraz sozializatzeko prozesuan eragiten duten arloak (etxea, eskola, aisialdia, kultura eta lagunartea) ildo beraren baitan landuko dira, batasun bat emanez.

Familien (batik bat gurasoen) hizkuntza tipologiaren aniztasuna hagitik kontuan hartu beharreko faktorea da. Seme-alabei euskara transmititzeko aukera ez duten gero eta familia gehiago bizi dira eskualdean. Egoera horretan dauden familien kasuan, hizkuntza bera transmititzetik ez izanda ere, etxean euskararen presentzia bermatzea, hizkuntzaren gaineko balioak transmititzea eta haurrak euskararekin ahalik eta harreman gehien izatea landu behar da, eta aldi berean eskuragarri dituzten baliabideen berri eman behar zaie.



HIZTUN BERRIAK:

- Euskalduntze-alfabetatzea
- Trantsizioa ikastetik erabiltzera
- Kanpotik eskualdera etorritakoak

Ildo estrategiko honek euskaraz ez dakiten edota euskara ikasten ari diren 16 urtetik goitiko herritarren dituen jomuga, ikastetik gizarte bizitzaren edozein arlotan erabiltzerainoko prozesu osoa aintzat hartuta. Horien alfabetatzeko eta euskalduntzeko prozesua sustatzeaz eta diruz laguntzeaz harago, ikastetik erabiltzerainoko prozesu osoan eragiten duten arloak batera landuko dira.

Kanpotik gure eskualdera datozen herritarrei euskarara hurbiltzeko eta hizkuntzan barneratzeko ibilbidea erraztea berariaz landuko da plan honen baitan.



GIZARTE ERABILERA:

- Aktibazioa eta sentsibilizazioa
- Tokiko administrazioa eta zerbitzu publikoak
- Arlo sozioekonomikoa eta garapen iraunkorra
- Ingurune digitala
- Tokiko hedabideak
- Kultura
- Elkarteak
- Aisialdia eta kirola
- Lagunartea
- Gazteen euskarazko sozializazioa eta aktibazioa
- Hizkuntza aniztasuna
- Harrera linguistikoa
- Hizkuntza eskubideak
- Ikerketa soziolinguistikoa

Kontzeptu zabal honen pean gizarte bizitzaren hainbat arlo kontuan hartu dira, euskararen gizarte erabilera horietan guzietan gauzatzen delakoz. Herritarren nahiz eragileen aktibaziotik landu nahi den ildo da. Gizarte bizitzaren ahalik eta esparru gehienetan norbanakoaren hizkuntza hautua euskara izatea lortu nahi da, baina aintzat harturik euskararen erabileran eragiten duen faktore bakarra ez dela hiztunaren hautua, ingurunearen araberrako faktoreek ere eragin handia baitute. Hortaz, harremanetarako hiztun sareak bermatzea egiteko garrantzitsua izanen da, hiztunek euskaraz aritzeko aukera izan dezaten administrazioan, lanean, denda eta ostatuetan nahiz aisialdiko jardueretan.

Horrez gain, plan honetan arreta berezia jarriko zaio harrera linguistikoari, kanpotik Bortzirietara bizitzera datozen herritar guzietan ongi etorria emanez eta haiekin euskararen inguruko informazioa partekatuz, arnasmune izateko bokazioa oinarri hartuta eta aldi berean hizkuntza aniztasuna aintzat hartuta.

**CORPUSA:**

- Tokiko hizkera, toponimia eta oikonimia
- Ahozko ondarea
- Hitanoa

Corpusarekin lotutako planetan interbentzioak hizkuntzaren formetan egiten dira. Kasu honetan, tokiko plan batez ari garenez, tokiko hizkerarekin lotutako arloak landu nahi dira, hau da, bertako hizkera, toponimia, oikonimia, hitanoa... hedatzeko jarduerak eta horiekin lotutako ikerketa.

**KUDEAKETA:**

- Giza baliabideak eta talde teknikoa
- Planaren jarraipena eta ebaluazioa
- Erakundearen egitura
- Euskalgintzarekin elkarlana
- Ikerketa, garapena eta berrikuntza
- Kudeaketa administratiboa
- Komunikazioa

Ildo honetan biltzen dira mankomunitatearen barne kudeaketarekin lotuta dauden arloak, gainerako ildo guztiak garatu ahal izateko baliabideekin eta funtzionamenduarekin zerikusia dutenak. Eta horiez gain, euskalgintzarekiko elkarlana eta erakundearen egitura ere aintzat hartzen dira, biak ala biak ondoko hilabeteetan egingen den gogoeta prozesuarekin estuki lotuak egonen diren arloak.

LEHENTASUNAK

Lehentasunezko ildo eta arloak identifikatzeko, eta arloek duten lehentasun maila zehazten laguntzeko, bi ariketa egin dira, bata maila teknikoan, eta bertzea hainbat herritarri iritzia galdetuta. Jarraian, ariketa horien emaitzak emanen dira; horien arabera erabaki da plan estrategiko honetako arlo bakoitzak izanen duen lehentasuna, hiru mailatan deklinatzen dena, altua, ertaina, eta baxua.

Lehentasunak ebazteko ariketa teknikarien artean

Mendialdeko euskara teknikariek arlo bakoitzaren bideragarritasuna eta eragina puntuatzeko taula prestatu zuten eta bakoitzak duen bideragarritasuna aztertu (teknikoa, politikoa eta ekonomikoa), gizartean duen eragina, euskararen ezagutzan, erabileran eta motibazioan duena, euskalgintzaren eskaera edo lehentasuna ote den, eta estrategia orokorrago baten baitan kokatzen ote den. Plan honek biltzen dituen arlo guztiak puntuatu dituzte mankomunitateko bi teknikariek. Hona hemen, ariketa egin ondoren arlo bakoitzak lortu duen emaitza, eta horren arabera hurrenkera.

1	Hiztun berriak	11,3
2	Aktibazioa	11,3
3	Arlo sozioekonomikoa eta garapen iraunkorra	11,1
4	Haur eta gaztetxoen hizkuntza sozializazioa	10,8
5	Tokiko administrazioa	10,3
6	Hedabideak	10,3
7	Harrera linguistikoa, kultur eta hizkuntza aniztasuna	10,1
8	Kultura (sorkuntza, prestigioa, kontsumoa...)	8,9
9	Hizkuntza eskubideak	8,8
10	Aisialdia (kirola, elkarteak...)	8,2
11	Corpusa	7,6
12	Eremu digitala	7,5
13	Lagunartea	7,0
14	Gazteen sozializazioa eta aktibazioa	7,0
15	Ikerketa soziolinguistikoa	5,4

Lehentasunak modu honetara multzokatu dira:

10 puntutik gora	ALTUA
8 -10	ERTAINA
8tik behera	BAXUA

Helburu eta erronkei buruz herritarrekin egindako ariketa

Plan estrategiko berria diseinatzeko prozesuaren barne, herritarrek online erantzuteko galdetegi bat egin zen 2020ko ekainean. Galdetegi horri Bortzirietako 58 herritarrek erantzun zioten. Galderetako bat zen aipa zitzatela plan estrategikoan lantzeko garrantzia handiena duten 3 eremu, lan ildo edo egiteko. Honatx erantzunen laburpena:

1	Arlo sozioekonomikoa	18
2	Haurrak eta gaztetxoak	15
3	Hezkuntza	10
4	Aisialdia	8
5	Administrazioa	8
6	Etxeko transmisioa	6
7	Helduen euskalduntze-alfabetatzea	6
8	Kaleak	7
9	Erabilera	5
10	Etorriberriak	5
11	Kultura	5
12	Herritarren aktibazioa eta sentsibilizazioa	4
13	Komunikabideak	2
14	Prestigioa eman euskarari	2
15	Sare sozialak	2
16	Eremu teknikoa	1

Ez da bidezkoa bi ariketak bere horretan alderatzea. Izan ere, teknikariek egindako ariketan aitzinetik esparruak finkatuak ziren, eta horien gainean 0-3 bitarteko puntuazioa eman zitzaion bakoitzari; gainera, ponderazio batzuk ere egin ziren. Herritarrei egindako galdeketaren kasuan, galdera irekia zen eta norberak erabaki zuen zein hiru ildo, arlo edo jarduera zehatzi ematen zion lehentasuna. Jasotako erantzun guztiak goiko taulan aipatzen diren esparruetan multzokatu ziren. Puntuazioak esparru horiek zenbatetan aipatu diren adierazten du.

Edozein kasutan, ohar horiek eginda, bi ariketak bat datoz zenbait puntutan. Alegia, bietan ikusi da erabateko lehentasunez landu behar direla arlo sozioekonomikoa eta haur eta gaztetxoaren sozializazioa (herritarrek betetako galdetegian sozializazioaren ildoan sartuko genituzkeen hainbat arlo aipatzen dira, hala nola haurrak eta gaztetxoak, aisialdia, hezkuntza, edo etxeko transmisioa).

JARDUERAK



Ildoa: HAUR-GAZTETXOEN (<16 URTE) SOZIALIZAZIOA

Arloa: ETXEA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Familien motibazioa elikatzea euskarari buruzko hausnarketa egin dezaten, etxean euskararen presentzia ahalik eta handiena izan dadin eta jarrera aktiboa izan dezaten haurrak euskaraz sozializatzeko neurriak hartzerakoan (zaintzaileak, eskola, aisialdia, etxeko giroa...).	1. Haur jaioberriak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurrak euskaraz sozializatzearen eta bereziki etxean euskarak ahalik eta presentzia handiena izatearen garrantziaren inguruan. 2. Haurrak eskolatu berritan eskolak eta familiak beren sozializazio prozesuan betetzen duten funtzioei buruzko mezuak eta euskarriak (idatzizko euskarriak, geletako bilerak...) sortu eta 3 urteko haurrak dituzten familiei helarazi. 3. Euskaraz ez dakiten gurasoei hitzaldiak, tailerrak, baliabideak... eskaini gurasoek haurra euskaraz sozializatzeko prozesuan bete dezaketen funtzioaz eta etxean euskarak presentzia ahalik eta handiena izatearen garrantziaz. 4. Gurasoen hizkuntza ohituretan eragiteko tailerrak antolatu, bereziki UEMAREN HEDATU programaren bitartez. 5. Teknikarien sareak kudeatzean duen era.eus webgunea elikatu eta edukiak zabaldu. 6. Hurrekin erabiltzeko euskarazko kantu, jolas, formula eta antzeko baliabideak eskaini.	

Arloa: ESKOLA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskarazko murgiltze ereduaren unibertsalizazioa, bereziki kanpotik etorritako familien artean.	7. 0-3 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, euskarazko murgiltze eredu hau- ta dezaten aholkatuz.	
Ikasleen euskararekiko jarrera aktibatzea.	8. Hezkuntzaren maila guzietan ikasleei baliabideak eta formakuntza eskaini, hizkuntza jarreraren inguruan eta zehazki ar- nasguneen garrantziaren inguruan; ekintza UEMAREN HEDATU programaren bitartez garatuko da bereziki, baita EIBZren Motibazioa Sustatzeko Baliabideak blogaren bidez ere. 9. EIBZk DBH 2. eta 3. mailetarako "Sormen digitala" hautazko ikasgai berria Bortzirietako DBHko ikastetxeetan ezartzeko lanketa egin. 10. Bortzirietan euskararen berreskurapen prozesua nolakoa izan den ikasleekin lantzeko unitate didaktikoa prestatu. 11. Bortzirietako ikastetxeen eta Iparraldeko mugakide diren herrietako ikastetxeen arteko harremanak sustatu (euskararen erabilera, hizkera ezberdinen ezagutza, motibazioa, kontzientziazioa, identitatea...).	
Ikastetxeekiko elkarlana areagotzea eta sis- tematizatzea.	12. Hezkuntza arloko eragileekin mahai teknikoa sortu. 13. Ikasleek euskaraz sozializatzeko dituzten hutsuneak aztertu eta baliabide egokiak erabaki (hezkuntza arloko mahai tek- nikoan). 14. Ikastetxeen hizkuntza planean laguntza teknikoa eskaini eta hizkuntza irizpideak landu.	

Arloa: AISIALDIA, KULTURA, KIROLA ETA LAGUNARTEA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Familiak haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantziaz ohartaraztea.	15. 5 urteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantzia azalduz.	
Haur eta gaztetxoentzako aisialdi eta kultur eskaintza euskaraz izan dadin bermatzea.	16. Guraso elkarteekin eta herrietako kultur eragileekin lanketa egin haur eta gaztetxoentzako kultur eta aisialdi eskaintzaren gaineko hizkuntza irizpideei buruz.	
Haur eta gaztetxoentzako euskarazko aisialdi eta kultur eskaintzaren berri ematea.	17. Euskarazko produktuen katalogoa (paperezkoa, digitala eta bertzelako euskarriak) banatu. 18. Euskarazko udaleku itxien berri eman. 19. Pauso eta Salto udalekuak (UEMA) sustatu. 20. Teknikarien sareak kudeatzen duen era.eus webguneko eskualdeko kultur eta aisialdi agenda elikatu eta edukiak zabaltu.	
Haur-gaztetxoei oporraldirako euskarazko eskaintza egitea.	21. Udaleku irekiak antolatu.	
Haur-gaztetxoen aisialdian eta kirol jardueretan aritzen diren arduradunen euskararekiko jarrera aktibatzea.	22. Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza tekniko antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materiala eta gainerako baliabideak), hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan.	
Haur eta gaztetxoen euskarazko kultur sormena bultzatzea eta prestigiatzea, kontsumoa bultzatzea...	23. Haur eta gaztetxoen euskarazko kultur kontsumoa bultzatzeko bideoak (irakurtzaletasunaren inguruan, euskal musikaren kontsumoaren inguruan...) 24. Sakelakoa, programa informatikoak, softwarea... euskaraz erabiltzeko gaztetxoentzako (+12) bideo tutoriala egin. 25. Haurrentzako euskarazko baliabide digitalen gida sortu eta zabaltu. 26. "Irakurriz gozatu" egitasmoan parte hartu	
Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako ikasleen euskararako ibilbidea erraztea eta laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta	27. Eskoletan guraso tutore eta harreragileen sarea sortu, kanpotik etorritako familiei laguntzeko. 28. Kanpotik iritsi berri diren ikasleei mentoretza programa eskaini. 29. Euskara indartzea behar duten haur eta gaztetxoentzako (bereziki etorri berriak) egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta eskola indartzea uztartuz.	
Haur eta gaztetxoen lagun taldeetan euskararen erabilera indartzea.	30. "Koadrillategi" egitasmoa Beran eta 14-16 adin tartean eskaintzea aztertu.	

**Ildoa: HIZTUN BERRIAK**

Arloa: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Herritarren artean euskararen ezagutza handitzeko (herritar gehiagok euskara ikasteko), euskalduntze-alfabetatzea prestigioatzea eta sustatzea.	31. Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko plana diseinatu. 32. Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko urteroko matrikulazio eta sentsibilizazio kanpaina, motibazio praktikoetan eta identitarioetan oinarrituta, eta mendialdeko euskara zerbitzuekin elkarlanean.	
Hiztun berrien aitortza eta ikusgarritasuna handitzea.	33. Hiztun berriek ikusgarritasuna izan dezaten eta gizarte bizitzan euskaraz parte har dezaten ekintzak, hiztun talde honi prestigioa eta zilegitasuna emanen diotenak.	
Euskalduntzeko eta alfabetatzeko eskaintza-aren kalitatea eta dibertsifikazioa laguntzea.	34. Bortzirietako Euskaltegiarekin elkarlanean ikastaro berezituak antolatu (euskalduntzera hurbiltzeko ikastaro laburrak, alfabetatzeko ikastaroak adin talde eta sektore zehatzentzat, arlo zehatzekin lotutako ikastaro espezifikoak...). 35. Ikaste prozesuetan euskalkidunen presentzia areagotu, euskalkidunak eta euskara ikasleak harreman zuzenean jarritz (euskalkia eta haien jakintza, usadioak, etab. transmititu). 36. Etxetik Plazara egitasmoa diruz lagundu.	
Euskalduntze-alfabetatzea unibertsalizatzea eta herritar ororen eskura egotea euskara ikasteko aukera. Giza talderik ez diskriminatzea euskara ikasteko eskubideari dagokionez.	37. Euskara ikasten ari direnei dirulaguntza eman. 38. Bortzirietako dirulaguntza sistema, doakotasuna ortzimugan duena, garatu.	
Bortzirietako euskalduntze-alfabetatzeko antolamendua hobetzea; Euskaltegia laguntzea.	39. Bortzirietako Euskaltegiarekin koordinazio gune iraunkorra. 40. Bortzirietako Euskaltegiari dirulaguntza ematea. 41. Bortzirietako euskalgintzaren gogoetaren barne, eta beharrezkoa balitz berariaz, Bortzirietako euskalduntze-alfabetatzearen etorkizuneko antolamenduari buruzko gogoeta sustatu eta lagundu.	

Arloa: TRANTSIZIOA IKASTETIK ERABILTZERA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskara ikasten ari direnei erabilerara jauzia egiten laguntzea eta euskaldunen sarea trinkotzea.	42. Euskalduntze prozesuan daudenei erabilerara jauzia egiteko bide eman: Solaslaguna, Mintzodromoa eta mintzapraktika egitasmoak. 43. Elaide.eus garatu, Nafarroako euskara zerbitzuok elkarlanean sortutako webgunea, euskara ikasleak motibatu, eta erabilerarako jauzia emateko baliabideak eskuratzeko.	

Arloa: KANPOTIK ESKUALDERA ETORRITAKOAK		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako erdaldunak euskarara erakartzea eta euskarako ibilbidea erraztea zein laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.	44. Harremanak euskaraz sustatzeko egitasmoa, euskara ikastaro berezituak (Euskara +, lan arlokoak), mintzapraktika esperimentzia bereziak, etab.	



Ildoa: GIZARTE ERABILERA

Arloa: AKTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Herritarrek aktibatzea, ahalduntzea eta eraldaketaren motore bilakatzea, euskararen erabilera handitzeko, hizkuntza ohiturak astintzeko eta euskara gizarte bizitzako esparru gehiagotara heltzeko.	45. Herritarrek Euskaraldian parte har dezaten lortu; Euskaraldiko antolaketa lagundu, gizarte mugimenduekin elkarlanean.	
Gizarte eragileak eta herritarrek euskararen egoeraz jabetzea, arnaguneen funtzioaz eta garrantziaz, eta beren hizkuntza ohiturez gogoeta egitea.	46. UEMArekin baitan eta UEMArekin elkarlanean arnaguneak baloreen jartzeko herritarrentzako saioak eta euskarriak. 47. “Arnasa gara” kanpainari jarraipena egitea. 48. Hizkuntza praktikei buruzko gogoeta eta sentsibilizazioa etorri berriei dagokienez (BHHP ²⁹).	
Euskal Herriko aktibazio eta sentsibilizazio ekimenak Bortzirietan hedatzea.	49. Korrikaren Bortzirietako antolaketan parte hartu eta ekimena babestu.	
Bortzirietako euskararen berreskurapen prozesua jasotzea eta herritarrei horren berri ematea.	50. “Emisio etena” dokumentala diruz laguntzea. 51. Bortzirietako euskararen berreskurapen prozesuari buruzko ikus-entzunezkoa egin eta zabaltzea.	

29 Bortzirietako Hizkuntza Harrera Planean jasotzen da.

Arloa: TOKIKO ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Bortzirietako toki entitateak euskararen normalizazioan motore izatea. Hizkuntza politika ausart eta aurrerakoia egitea.	52. Udal hautetsiak eta langileak sentsibilizatu eta motibatu euskararen normalizazioan duten egitekoari dagokionez, UEMArekin elkarlanean. Lidergoa partekatu eta aktibatu, euskarak zehar lerroko gai bezala dagokion tokia izan dezan. 53. Udaletako hautetsi guzietan legediari, soziolinguistikari eta hizkuntza plangintzari buruzko ezagutza gerturatu.	
Bortzirietako toki entitateetan euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izatea.	54. UEMArekin koordinatu eta elkarlanean ari, udal erabilera planen gauzapenean eta jarraipenean. 55. Mankomunitateetan erabilera planak abiatu eta jarraipena egin. 56. Udalen menpeko erakundeetan (kiroldegia, musika eskolak, zahar etxeak...) erabilera plan berezituak egin eta hizkuntza irizpideak landu, UEMArekin elkarlanean. 57. Baztan-Bidasoa eskualdeko erakunde berria egituratzen denean hizkuntza irizpideak eta plana landu abiatzerako. 58. Hizkuntza eskakizunen jarraipena egin, eta udal administrazioetan sartzeko euskara probak bideratu. 59. Bortzirietako udal eta mankomunitateetako udal langileen euskarazko etengabeko prestakuntzarekin jarraitu.	
Arnasguneen zaintza.	60. Udaletan eta udalez gaindi egiten diren hirigintza proiektuetan hizkuntzaren eragina neurtu eta neurri zuzentzaileak proposatu (ELE tresnaren aplikazioa UEMArekin elkarlanean).	

Arloa: ARLO SOZIOEKONOMIKOA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskara laneko hizkuntza izan dadin eragitea, eta lan mundua nagusiki euskaraz izan dadin lortzeko datozen urteotako estrategia bateratua parte hartzea.	61. Komunikazio estrategia finkatu eta koordinatu bertzelako eragileekin (UEMA, Euskarabidea, Kontseilua, Eusko Jaurlaritza, etab.). 62. Bortzirietako era guztietako enpresen mapa eguneratu; aliantzak aztertu. 63. Lanbide heziketaren eta lan munduaren arteko uztardura sustatu, euskaratik. 64. Eskualdeko garapen eragileekin lanketa proiektu berrietan euskara aintzat hartzeko.	
Enpresa handietan euskararen presentzia areagotzea.	65. Lantegietan langileen arteko erabilera informala sustatu. 66. Ulerrizketa egitasmoa Bortzirietan aplikatzea aztertu.	
Bortzirietako zenbait enpresatan euskararen erabilera areagotzeko planak abiatzea, bide hori urratzen hastea.	67. Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzeko dirulaguntzen berri eman eta aholkularitza eskaini. 68. Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzea sustatu.	

Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan herritarrei euskarazko arreta bermatzea eta erabilera areagotzea.	69. Ostalaritza eta merkataritza establezimendu berriak ireki aitzinetik errotuluak, paisaia linguistikoa, euskaraz lan egiteko baliabideak eta irizpideak eskaini, udalekin elkarlanean. 70. Ostalaritza eta merkataritza arloko eragileak aktibatu, bezero eta erabiltzaileekiko harremanean lehen hitza euskaraz izan dadin. 71. "Herrian erosi, euskaraz erosi" egitasmoa garatu, material eta zerbitzu eskaintza zabaldu. 72. Berako bentetako eragileekin sentsibilizazioa landu, euskararen balio erantsia erakutsaraziz.
Bortzirietara datozen bisitari eta turistak euskarara hurbiltzea eta euskara prestigioatzea.	73. Baztan-Bidasoako turismo arloko eragileekin elkarlanerako gunea sortu. 74. Turismo arloko eragileak aktibatu, bisitarieko harremanean euskara baloreen jartzeko eta hizkuntzari buruzko informazioa emateko. 75. Turismo arloko eragileekin hizkuntza irizpideak landu (informazioa ematerakoan, bisita gidatuetan, paisaia linguistikoan...) 76. Bisitari eta turistei euskararen berri emanen dieten euskarriak sortu eta zabaldu, euskara (agurrak, esapide laburrak...) erabiltzera bultzatuz; kasu batzuetan UEMAekin elkarlanean. 77. Euskara ardatz izanen duten bisita gidatuak antolatu eta euskarriak sortu.

Arloa: INGURUNE DIGITALA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Ingurune digitalean eta teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzea eta ahalbidetzea.	78. Herritarrek eta entitateek programa informatikoak, softwareak, aplikazio informatikoak eta sare sozialak euskaraz erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio kanpainak. 79. Euskarazko ingurune digitalaren erabileran trebatzeko ikastaro eta tailerrak eskaini. 80. Merkataria, elkarte, enpresa, norbanako, etab.en webgune eta aplikazio informatikoak euskaraz egon daitezen aholkularitza (eta dirulaguntzak).	

Arloa: TOKIKO KOMUNIKABIDEAK		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Eskualdeko komunikabideak babestea.	81. Eskualdeko komunikabideentzako diru laguntzak kudeatu.	

Arloa: KULTURA		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskarazko kultur eskaintza zabal eta askotarikoa ziurtatzea, kultur eragileekin harremanetan.	82. Mankomunitateak herrietan antolatzen dituen kultur ekitaldiak bertako eragileen esku uzteko ibilbidea egin. 83. Kultur taldeekin hizkuntza irizpideak landu eta kultur taldeek euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza.	
Euskarazko kulturaren sorkuntza, transmisioa eta kontsumoa sustatzea, kulturgintza eta hizkuntza sozializazioarekin lotuta.	84. Euskarazko kultura prestigiatu eta herritarrek euskarazko ekitaldietan parte har dezaten/euskarazko kulturaz goatzeko ekimen eta kanpainak, bertze eragile batzuekin elkarlanean. 85. Euskarazko kultur sormena sustatzeko, kultur talde eta sortzaileentzako (gazteentzako) beka. 86. Euskal kulturaren transmisioaren inguruko foroetan parte hartu eta topaketak antolatu elkarlanean. 87. Bortzirietako Bertso Eskolaren jarduna sustatu eta babestu. 88. Etxepare literatur sariketa antolatu eta lan sarituak zabaldu. 89. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatu liburuen gomendioak eginez, tokiko komunikabideekin eta liburutegiekin elkarlanean. 90. Euskal musikaren gomendioak egin, tokiko komunikabideekin eta musikariekin elkarlanean.	

Arloa: ELKARTEAK		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Elkarteen funtzionamendua eta jarduerak euskaraz izatea.	91. Bortzirietako elkarteetan euskararen erabileraren gaineko diagnosia egin; lehentasunak zehaztu. 92. Elkarteekin hizkuntza irizpideak landu. 93. Elkarteek euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza.	

Arloa: AISIALDIA ETA KIROLAK		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskarazko jarduera ludikoaren eskaintza handitzea.	94. Helduentzako aisialdi eskaintzaren azterketa egin. 95. Aisialdi arloko eragileekin elkarlanean, euskarazko aisialdi eskaintza areagotzeko proposamena landu. 96. Solaslaguna egitasmoaren baitan antolatzen diren aisialdi jarduerak publiko zabalarari eskaini.	
Kirol munduak euskaraz funtzionatzea eta euskarazko eskaintza bermatzea.	97. Bortzirietako kirol eskaintzan eta kirol taldeetan euskararen erabileraren gaineko diagnosia egin. 98. Kirol taldeekin hizkuntza irizpideak landu, euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza.	
Aisialdian aritzen diren arduradunen euskararekiko jarrera aktibatzea.	99. Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza tekniko antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materiala eta gainerako baliabideak), hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan.	

Arloa: GAZTEEN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA ETA AKTIBAZIOA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Gazteen artean euskararekiko kontzientzia sortzea eta areagotzea, eta erabilera indartzea.	100. Euskararen inguruko motibazio tailerrak antolatu, arnaguneen ikuspegitik. 101. Gazteen intereseko ikastaro, tailer, saio, eta gisakoak antolatu, euskararen erabilera eta motibazioa lantzeko.	
Gazteen artean kultur sorkuntza eta euskarazko kulturen murgiltzea sustatzea.	102. "Irakurritz gozatu" egitasmoan parte hartu. 103. Ekitaldiak antolatu gazteekin elkarlanean, musika, antzerkia, etab.	

Arloa: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Eskualdeko hizkuntza eta kultura aniztasuna aitortzea, eta aniztasun horrekiko jarrera positiboa bultzatzea (BHHP).	104. Migrazio eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak, hitzaldiak, mahai-inguruak, kanpainak, eta etab.	
Elkar ezagutzarako guneak eta uneak sortzea, euskara erdigunean jarrita (BHHP).	105. Kultur eta hizkuntza aniztasunaren inguruko ospakizuna ("Mugarik Gabe"ren ondorengoa).	

Arloa: HARRERA LINGUISTIKOA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Etorri berriei ongi etorria ematea eta haiekin euskararen inguruko informazioa partekatzea, Bortziria arnagunea dela oinarri hartuta (BHHP).	106. Erroldatzen den herritar orori euskararen inguruko informazioa, euskarri ezberdinak erabilita, zehazki euskara ikasteko baliabideen berri emanez. 107. Harrera instituzionala egiten duten eragileei (harrera, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, irakasleak...), hizkuntza harreraren inguruko formazioa. 108. Etorri berriei ongi etorria eta informazioa emateko saioa, herriko etxean, berriki erroldatutako herritarrek gonbidatuta. 109. Bisita gidatua herria ezagutzeko: aisialdia, bizitza soziala eta baliabideak.	
Bertako herritarrek harreragile izateko sentsibilizatzea eta inplikatzeko (BHHP).	110. Ongi etorria emateko/egiteko prest dauden herritar bolondresen sarea osatu. 111. Harrera sareko herritarrei formakuntza euskara eta aniztasunari buruz.	
Hizkuntza harrera planaren koordinazioa lantzea (BHHP). Herritarren eta udal agintarien arteko elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte hartzearen kultura sustatzea (BHHP)	112. Hizkuntza harrera planaren koordinazioa, maila instituzionalean, eta harrera sareari dagokionez.	

Arloa: HIZKUNTZA ESKUBIDEAK		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Tokiko administrazioetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.	113. Herritarren eskaerak bideratu eta erantzun egokia eman; behar diren aldaketak egin hizkuntza eskubideak bermatzeko.	
